

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Kapatxanen balio-proposameneko eskaintza garatzea, bezeroengana iristea, haiekin harremanak izatea eta diru-sarrerak sortzearen helburuarekin hurrengo baliabideak eskaintzen ditugu gure enpresarekin.

Bezeroekin harreman zuzenena gure dendaren bidez lortuko dugu. Bertan zuzenki produktua ikus eta probatu dezakete, beraien gustura aukeratu ahal izateko. Diru sarrerak gora egitea da helburu nagusia. Beraz, gure proposamena denda bakarria hasieran egitea da, ondoren gure enpresa ezaguna egiten joaten den heinean, beste denda batzuk irekiko ditugu Espainia mailan.



Produktuaren ekoizpenerako beste baliabide oso garrantzitsua langileak, giza baliabideak, dira. Hauen laguntzarekin lortzen dugu produktua aurrera eramatea. Produktuaren ekoizpenerako eta hauek saltzeko beharrezkoak dira.

Produktua ekoizteko beharrezkoak diren baliabide fisikoak ekoizten dizkuguten enpresak funtsezko baliabideak dira: botoiak, plastikoak... Hauek langileekin batuta lortzen dugu gure produktua. Guk bilatutako materialak ekologikoak eta ingurumenerako jasagarriak dira.

Baliabide teknologikoen barruan makinak erabiltzen ditugu. Gehien erabiltzen dugun makina, josteko makina da. Honen bitartez botoiak lotzen ditugu, baita aterkiaren beste zati batzuk. Aterkiaren diseinurako telak ere lotzen ditugu, kolore eta tamaina desberdinak... Gainontzeko gauzak eskuz egiten ditugu.

